

Mary Salter Ainsworth.

In memoriam

S. Yárnoz, L. Sainz de Murieta, M. Plazaola eta I. Alonso

**Nortasuna, Ebaluazioa eta Tratamendu Psikologikoen Saila, Psikologi Fakultatea,
Donostia**

Joan den 1999ko martxoaren 21ean Mary Salter Ainsworth hil zen Charlestonvillen, Estatu Batuetan, 82 urte zituelarik, gaixotasun luze baten ondorioz.

Garapenaren Psikologiaren eta Ebaluazio Psikologikoaren eremuetan ekarpen interesgarriak egin zituen; baina bereziki gogoratua izango da 1990. urtean hil zen John Bowlbyrekin batera, Atxikimenduaren Teoriaren oinarriak finkatu zituelako, berrogei urte luze iraun zuen elkarlan berezi baten ondorioz.

Artikulu honetan, omenaldi gisa, Mary S. Ainsworthek landutako bi arlo ezberdin eta osagarrietan eginiko ekarpenak jasotzen ditugu: atxikimenduaren teoria eta ebaluazioa. Eta bukaeran Ainsworth-ek, helduen atxikimenduaren ikerkuntza hastapenerako eustarriak nola jarri zituen adierazten dugu, bide honetatik Bowlbyren baieztapena onetsi zuelarik: «Atxikimendu portaera, sehaskatik hilobira bizirik mantentzen den gizakien ezaugarri bat da».

On last March 21, 1999, Mary Salter Ainsworth died in Charlestonville after a lengthy illness. She was 82 years old.

She made interesting aportations in the fields of Developmental Psychology and of Psychological Assessment; but she will be remembered along with John Bowlby (died in 1990) with whom through a fruitful collaboration lasting for 40 years, she provided the foundations of the Attachment Theory.

In this article written to honor Ainsworth, we review her work in two different but complementary fields: Attachment Theory and Psychological Assessment. And we finish remembering that Ainsworth began to examine attachment as a life-span concept, something which persists from infancy to adulthood, making good the expression of Bowlby: «Attachment behaviour characterizes human beings from the cradle to the grave».

1. Hasiera: Blatz-en Segurtasunaren Teoria¹

Mary Salter Ainsworth Glendalen, Ohion, jaio zen 1913. urtean. Kanadan pasa zuen bere haurtzaroa, eta Torontoko Unibertsitatean bukatu zituen ikasketak 1939. urtean, Bigarren Mundu Gerratea hasi baino lehenago. Bertan, Blatz-ekin egindako ikastaroak Segurtasun teoriarekiko bere interesa piztu zuen.

Segurtasunaren Teoriaren oinarria (Blatz, 1966, Ainsworth eta Bowlby, 1991tik hartuta), honako hau da: haurrak gurasoenganako menpekotasun seguru bat garatu behar du, ezezagunak diren egoeretan murgiltzeko gauza izan baino lehen. Blatz-en arabera, segurtasun mota ezberdinak daude:

1. Lehenengoa, **heldugabeko segurtasun menpekoa** (inmature dependent security) da. Hauxe da haurrek gurasoak beraietaz arduratzen badira sentitzen dutena; honi esker, ikastegi aparta den mundua esplora dezakete. Beldurtu egiten badira, edo gaizki sentitzen badira, badakite gurasoek lasaitu eta babestu egingo dituztela. Horregatik gurasoen eskuragarritasuna oinarri seguru bat da haurrarentzat, hortik munduari buruz ikasi ahal izateko.

2. Denborarekin, haurrak gero eta trebeagoak dira, eta normala den bezala, gero eta gehiago dakite. Ondorioz, **segurtasun independente** bat lortzen dute, hau da, ez dute gurasoen beharrik eta bere kabuz molda daitezke. Blatz-en ustez, pertsona bat heldutasunera heltzen denean, gurasoengandik guztiz emantzipatua behar du egon, eta gurasoekiko menpekotasunaren jarraipena, ezegoki bezala ikusten zuen.

3. Lor daitekeen segurtasun mailarik altuena **heldutasun menpeko segurtasuna** (mature dependent security) da, non segurtasun independentea oinarri gisa harturik, bi pertsona heldu elkarrekiko oinarri seguru bat bilakatzen dira, harreman aberasgarri batean.

“An Evaluation of Adjustment Based on the Concept of Security” (Segurtasun Kontzeptuan Oinarritutako Adostasunaren Ebaluazioa) izenarekin egin zuen bere Doktore Tesia, 1940. urtean. Tesiaren helburua honako hau zen: zein neurritan, pertsonak azaltzen zuten segurtasuna gurasoekiko heldugabeko segurtasun menpekoa, bestetik independentea, kidekoekin dependentzia heldua, edo azkenik defentsa mekanismoek emandako segurtasun faltsua, ote zen ebaluatzea.

Ainsworth-ek paper eta arkatzezko bi tresna eratu zituen pertsona bat segurua den ala segurtasunik gabe zein mailatan sentitzen den ebaluatzeko asmoz. Lehenengo eskalak gurasoekiko erlazioez galdetzen zuen, bigarrenak lagunekikoaz. Arkatz eta paperezko eskalak ikasleen autobiografiaren bidez balidatu zituen.

Estreinako lan honetan, ebaluazioarekiko zuen interesa garbi azaltzen zaigu. Eta bere aurkikuntzak segurtasunaren teoriaren oinarriekin, momentu hartan formulatzen zen bezala, bat zetozen: familiak hasierako etapetan emandako segurtasuna menpekoa da, eta pertsonari, beste arloetan aurkitzen ari den trebetasuna eta interes berriak landu ahal izateko oinarri bat eskaintzen dio. Familiak emandako segurtasuna gertatzen ez den kasuetan gizabanakoaren garapena

1. Lan hau EHU-UPVren 006231-HAO85/98 ikerketa proiekturako laguntzari esker egin da.

oztopatuta dago oinarri seguru bat falta zaiolako. Kontutan hartu Atxikimenduaren Teoriaren baitan hain garrantzizkoa den kontzeptua (oinarri seguru baten beharra) hemen agertzen dela jadanik.

Edozein modutan, Ainsworthen ustez Blatzen teoriak ez zituen prozesu defentsiboak behar bezala aztertzen. Hain zuzen ere, arlo honetan Blatzek Freuden kontrako jarrerarekin, uste zuen prozesu kontzienteek soilik zutela garrantzia nortasunaren garapenean. Ainsworth ez zegoen ados planteamendu honekin, are gehiago, ebaluazioaren aldetik uste zuen paper eta arkatzezko metodoekin ia ezinezkoa zela era egoki batean neurtzea defentsa mekanismoek hanpatu zituzten segurtasun puntuazioak (Ainsworth eta Bowlby, 1991).

Ondorio bezala, Ainsworthen ustetan, Blatzen teoriak ez zuen behar bezala kontuan hartzen prozesu defentsiboek segurtasunean duten eragina.

Gerra garaian, beste asko bezala, "Canadian Women's Army Corps" delakoan ofiziala izan zen, eta gerra amaitzean, Torontoko Unibertsitatean, Ebaluazio Psikologikoa ikasgaiaren irakasle izan zen.

2. Ebaluazio Psikologikoan egindako ekarpenak

Garai berdintsuan, Teknika Proiektiboen balidazio arazoei buruz Ebaluazio Psikologikoaren arloan garrantzizkoa izan den artikulu bat argitaratu zuen (Ainsworth, 1951). Teoria psikodinamikoa jarraituz, portaerak batasun bat du, bere osotasunean hartu behar da, eta ezin da osagai ezberdinetan zatitu. Test proiektiboek portaeraren osotasun horren oinarritzko egituraren ebaluazioa egitea ahalbidetzen dute. Beraz, test proiektiboek ez dute aldagai bat ebaluatzen, baizik eta korrelazionatuta dauden aldagaien diagrama dinamiko bat eskaintzen dute (Ainsworth, 1951; Anzieu, 1961).

Ainsworthek bere artikuluan zera markatzen zuen: test proiektibo bat balidatzea ez dela, aldagai zehatz bat duten neurrien arabera, aztertzen diren subjektuak sailkatzen ote diren egiaztatzea, baizik eta test proiektiboen balidazio prozesuak hipotesi balidazio prozesuekin harreman estua ote duen adieraztea.

Rorschach testaren balidatzean, esaterako, tinta orbanen hautemateak nortasunaren dinamika islatzen duela egiaztatu eta onartuz gero, Rorschach, Klopfer edo Becken notazio edo oharpen eta interpretazio eskema da balidatzen dena.

Interpretazio sistemak garrantzi handia du. Honen bidez, datu kualitatibo batzuk (subjektuaren erantzun libreak) sailkatu egiten baitira aldez aurretik markatu diren kategori batzuen arabera. Eta kategoria hauek zentzua izango dute interpretazio baten oinarria direlako. Ainsworthentzat, sailkapen baten balioa, balidezian baino gehiago, fidagarritasunean datza.

Gaur egun ere garrantzizkoa den baieztapen honetatik (Anzieu, 1961; Espada, 1986) Ainsworthek ondorio garrantzitsu bat atera zuen: test proiektiboek aplikatu behar zaizkie gainontzeko test guztiei aplikatzen zaizkien betebeharrak psikometrikoak, baina modu berezian ulertuta.

2.1. Test proiektiboen sentsibilitatea, fidagarritasuna eta balidezia

Jakina denez, ebaluazioaren munduan, edozein frogak bete behar dituen gutxieneko betebeharrak sentsibilitatea, fidagarritasuna eta balidezia direla onartzen da.

Sentsibilitatea, aldagai aske batek menpeko aldagaiean eragindako aldaketak aurkitzeko testaren ahalmena da. Gaitasunezko testetan neurtzen du zein neurritan duen Subjektuak edozein gaitasun. Subjektuen banaketak, banaketa normala, edo Gaussen kanpaia jarraitzen du. Test proiektiboetan, aldiz, beste modu batera kontsideraturik dago. Hauetan nortasunean duten garrantzi ezberdina ikusirik, bertan aztertzen ditugun ezaugarriak agertzeko testaren ahalmena da sentsibilitatea. Sentsibilitatea duela, edo sentsiblea dela erakusteko, testak teoriarekin era koherente batean, subjektuaren nortasunean adina, gaixotasuna edo bizitzaren egoeren ondorioz gertatzen diren aldaketak islatu behar ditu.

Fidagarritasuna. Test psikometrikoetan, fidagarritasuna neurriaren egonkortasuna eta zehaztasuna bezala definitzen da. Hau bi modutan ulertzen da:

1. Erantzunaren egonkortasuna, hau da, ikaskuntzaren eragina bazterturik, subjektuaren erantzunen berdintasuna bi pasazioetan.

2. Epaile ezberdinen arteko akordioa bezala, protokolo berdinak aztertze-rakoan.

Test proiektiboetan, lehen ikusi dugun bezala, sentsibilitatearen definizioari kontrajarria agertzen da lehenengo esanahia, eta horregatik bigarrena gordetzen da.

Bi metodo daude teknika proiektiboen fidagarritasuna aztertzeko: itsu prozedura eta "matching" edo parekatzea.

Itsu prozedura: Epaile bik edo gehiagok zuzentzen dute subjektu baten protokoloa, honi buruz adina, sexua, eta batzuetan maila sozioekonomikoa eta adimen maila bakarrik ezagutzen dutelarik. Metodo hau erabiltzen denean epaileen interpretazioen arteko akordioa kontutan hartzen da fidagarritasuna kalkulatzeko.

Matching edo parekatzea: Epaile bakoitzari testaren protokoloa eta interpretazioaren arabera lortu dugun profil psikologikoa ematen zaio. Epailearen lana protokolo bakoitza dagokion profilarekin uztartzea da.

Balidezia. Hiru metodo daude test proiektiboen balidatzea aztertzeko:

Kanpoko irizpide batekin dagoen korrelazioa. Esate baterako, subjektuaren autobiografiarekin, ametsekin, edo beste testak erabiltzean lortu dugun informazioarekin.

Barne korrelazio estatistikoaren bidez. Alegia, azterketa faktorialaren bidez.

Iragarpen ahalmenarekin. Subjektuari buruz egin diren iragarpen klinikoak zein neurritan betetzen diren ikusiaz.

Garai hartan, Ainsworthek Bruno Klopferekin nortasun ebaluazioan egin zuen lan, eta ondorio bezala, 1954. urtean argitaratu eta oraindik erabiltzen den liburu baten egilekide da: "Developments in the Rorschach Technique". Klopferek 1939. urtean Rorschach Institutua fundatu zuen, New Yorken, eta testa interpretatzeko eta notazio edo idazpenak egiteko eskola baten buruzagia da. Liburu honen kapitulu batean Ainsworthek berriro tratatzen du balidazio arazoa (Problems of validation).

3. Europarako bidean. Atxikimenduaren Teoriaren Sorrera.

1950. urtean Mary Ainsworth, bere ikerketa taldeko partaide zen Leonard Ainsworthekin ezkondu zen, eta Ingalaterrara abiatu ziren biak, senarrak Londresko Unibertsitatean ikasteko beka bat lortu zuelako. Hor, kasualitatez, bizitzan askotan bezala, Bowlby eta bere lanak ezagutu zituen.

Psikiatra eta psikoanalista zen Bowlbyk (1907-1990), bere lehen lanetatik hasita, ama-haurren arteko harremana aztertu zuen. Ez zetorren erabat ados betiko adierazpen psikoanalitikoekin. Hauetan, oinarrizko beharrak asetzen zituztelako (gosea bereziki), zaindariei atxikitzen zirela haurrak defendatzen zen.

Konrad Lorezen "inprinting"-ari buruzko lanak agertu berri ziren garai hartan, eta Bowlby, ilusioz beteta, etologiaren munduan murgildu zen. Bertan, banaketak eragindako distres erantzunak, amek *inprintatuta* zeuden txorietan eta haur gazteetan, oso antzekoak zirela aurkitu zuen.

Etologian ere, berak klinika ulertzeko moduarekin bat zetorren metodo bat aurkitu zuen: behaketa zuzena, hau baitzen inguru naturaletan edozein ikerketaren hasiera.

Psikologian, teoria psikoanalitikoan, portaeraren zientzietan, fisiologian, zibernetikan eta etologian oinarria zuten ekarpenak bilduz, Bowlbyk gorputz teoriko sendo bat eratu zuen. Berarentzat, atxikimendua, irudi berezi batekin hurbiltasuna eta kontaktua mantentzeko joera bat da. Joera honetan testuinguruak badu eragina: beharra gehitu egiten da zenbait unetan (subjektua beldurturik, nekaturik, gaixorik edo urduri sentitzen denean) eta gutxitu egiten da subjektua ongi edo seguru sentitzen denean, eta ingurua esploratu nahi duenean.

Atxikimendua kontrol sistema bat da (Bowlby, 1982). Sistema honen helburu orokorra haurraren segurtasuna lortzea da. Unean uneko beharrek erabakitzen dituzten helburuak lortzeko portaera egokitzen duen mekanismoa. Beraz, haurrak helduarekiko duen hurbiltasun beharra ez da beti berdina, barruko nahiz kanpoko faktore batzuen arabera moldatzen baita (haurraren beldurrak, haurrak hautemandako segurtasun maila, potentzialki arriskutsuak diren egoerak, e.a.).

Haurrari, momentuan duen hurbiltasuna nahikoa gertatzen ez bazaio, hurbiltasun gehiago lortzea helburua duten portaerak aktibatuko ditu, hots, atxikimendu portaerak —negarra, irribarrea, besarkatzea eta atxikimendu irudiari jarraitzea—. Bestela, bere indarrak ingurunea esploratzen edo beste pertsonekin harremanetan jartzen erabiliko ditu.

Atxikimendua kontrol sistema bat bezala ulertzeak, barne antolakuntza eta atxikimendu irudien eta "selfaren" barne ereduaren garrantzia azpimarratzen du. Era eraginkor batean atxikimendu sistema aktibatzeke edo desaktibatzeke, haurrak atxikimendu irudiaren eta bere buruaren barne eredu bat sortu behar du. Barne eredu honi esker, atxikimendu irudiaren prest egote edo disponibilitatea, urruntasuna edo hurbiltasuna, eta oro har, berari laguntzeko agertzen duen dispozizioa aztertuko du. Era berean, bere burua atentzio eta arretagai bezala ebaluatuko du, eta besteen arreta pizteko duen gaitasuna ere.

Barne Eredu Eraginkorrek edo "Internal Working Model" hauek, teoria psikoanalitikoan barne objektuaren, eskema, "skript", gidoia edo konstruktio pertsonalak garapenaren psikologian eta psikologia kognitiboaren antzekoak dira, eta egin-behar berdina dute: harreman afektiboetako buruzko informazioa antolatzea, hautatzea eta erabili.

Bizitzaren lehenengo urtean zehar eta atxikimendu irudiarekin izandako elkarreraginaren ondorioz, haurrek atxikimendu irudiaren prest egote eta eskaintzen duen segurtasunari buruz, nahikoa garatua dagoen ideia bat dute. Ideia hori portaera patroi batzuetan gauzatzen da, Ainsworthek eta bere lankideek "Strange Situation" edo Egoera Arrotzaren bidez frogatu zuten bezala.

Ainsworth Londresera bizitzera joan zen garaian Bowlby, Tavistock Klinikako bere taldearekin, haurtzaroko amarengandiko bereizketak nortasunaren garapenean zuten eragina aztertzen ari zen. *The Times Educational Supplement* egunkarian iragarki bat jarri zuen, teknika proiektiboetan aditua zen giza garapenaren ikertzaile bat eskatuaz, eta Ainsworthek irabazi zuen postua.

Bowlby teoriko bat izan bada ere, Ainsworthek Atxikimenduaren Teorian ekarpen empirikoak egin zituen. Nagusienetarikoa bi hauek dira: "Strange Situation" edo Arrotz Egoera izenarekin ezagutzen den ebaluazio metodo erraza bezain erabilgarria, eta gerora haurrak izango duen Atxikimendu motaren determinatzaile bezala, amaren portaeraren garrantzia.

Geroago aztertuko ditugu merezi bezala, baina orain kontakizun historikoa jarraituko dugu.

4. Ugandako eta Baltimorreko ikerketak.

1953. urtean M. Ainsworthek Londresetik alde egin zuen. Bere senarrak Kanpala (Uganda) lana lortu zuen ikertzaile bezala, eta hara abiatu ziren biak.

Atxikimenduaren Teoriaren zenbait alde empirikoki frogatu nahian, Kanpala inguruko 28 ama-haur bikoteraren behaketa eraman zuen aurrera bederatzi hilabetetan zehar. Behaketak etxeetan gauzatzen ziren, non itzultzaile baten laguntzarekin, amak haurrak zaintzeko ohiturez eta haurraren garapenez elkarrizketatu zituen, eta ama-haurraren arteko elkarreraginak behatu zituen.

Haurren adina 1-24 hilabetekoa zen, eta 2 astez behin bi orduz behatzen zituen familiaren etxean.

Ugandan haurrekin egindako behaketetan, Ainsworth haurren portaeran hiru patroia agertzen zirela (era segurua atxikiak, era ez segurua atxikiak eta ez atxikiak) konturatu zen; eta amekin egindako elkarrizketak aztertuz, haurrek egindako seinaleen aurrean amek sentikortasun ezberdinak zituztela nabaritu zuen: sentikortasun handiko amek, espontaneoki xehetasun asko ematen zuten haurren portaeraz, eta datu asko eskaini elkarrizketetan. Beste muturrean zeuden amek, ez ziruditen hain sentikorak haurren portaeraren xehetasunez.

Nahiz eta ikerketa honetan beranduago gauzatuko zituen beste ikerketekin konparatuz baliabideen sofistikazioa eskasa izan, Ainsworthek geroko lanetan garatuko zuen oinarriko emaitza bat agertu zen hemen: haurren atxikimendu seguruak korrelazio altua zuela amaren sentikortasunarekin eta bularra ematerakoan amak sentitzen zuen plazerrarekin (Bretherton, 1992).

1955. urtean Ainsworthtarrek Uganda utzi zuten, eta Baltimorrera (EEUU) abiatu ziren, senarrak hor lan bat aurkitu zuelako. Mary Ainsworthek Johns Hopkins Unibertsitatean postu bat aurkitu zuen nortasunaren ebaluazioan eta klinikan lan egiteko. Ugandan bildutako emaitzak landu zituen (Ainsworth, 1963, 1967) eta Barbara Wittingekin batera beste ikerketa bat hasi zuen. Bere "modus operandi"-an behaketa zuzena eta amek emandako informazioa nahasten ziren, Ugandan egindako ikerketaren modura.

Kasu honetan, partehartzaileak 26 familia ziren. Ainsworthek pediatria pribatuen bidez egin zituen kontaktuak haurrak jaio baino lehen. Bi urte iraun zuen datu bilketak eta denbora hartan familiak hiru astetan behin bisitatu zituen bere etxeetan, bisitaldi bakoitza lau ordukoa izanik. Familia bakoitzarekin 72 orduko behaketa egin zuen.

Metodologikoki, portaera berezi batzuen maiztasuna kalkulatu ordez, Ainsworthek testuinguruaren barruan ematen diren portaera eredu esanguratsuak aztertzen zituen. Gauzak egiteko modu hau bere hasierako lanetatik hasita antzeman dezakegu: tesian bertan (non, ikusi dugun bezala, familiarekiko eta familiaratik kanpoarekiko menpeko segurtasunezko eta segurtasun askeko ereduak sailkatu zituen), Rorschach testarekin egin zituen lanetan eta Tavistock Institutuan Bowlbyrekin egindako lanetan (Bretherton, 1992).

Emaitzen analisiak garbi utzi zuen agerian lehen hiru hilabeteetako ama-haurraren elkarreraginetan patroia batzuk azaltzen zirela (ikus Ainsworth eta Kideak, 1978, Ainsworth 1982, 1983). Datu aberats hauek urteetan zehar aztertuz, ama-haurra bikotearen elkarreraginean ikuspegi ezberdinak agertu ziren egoera ezberdinetan kokatuta: elikatze egoeretan (Ainsworth eta Bell, 1969), ama-haurraren aurpegiz aurpegiko elkarreraginean (Blehar, Lieberman eta Ainsworth, 1977), negarrean (Bell eta Ainsworth, 1972), haurrak amari egindako agurra eta jarraipenetan (Stayton eta Ainsworth, 1973), obedientzian (Stayton, Hohan eta Ainsworth, 1973), atxikimendu-esplorazioaren arteko orekan (Ainsworth, Bell eta Stayton, 1971), gorputz kontaktuan (Ainsworth, Bell, Blehar eta Main, 1971, in Bretherton, 1991), hurbiltze portaeretan (Tracy, Lamb eta Ainsworth, 1976) eta afektuzko kontaktuetan (Tracy eta Ainsworth, 1981).

5. Arrotz Egoera (*Strange Situation*; Ainsworth eta Witting, 1969)

Atxikimenduaren barruan ebaluazio prozedurarik ezagunena, Arrotz Egoera bezala ezagutzen dena, 24 minutuko iraupena duen laborategiko egoera bat da (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus aldizkari honetan Yarnoz, 1995).

Hiru minutuko iraupena duten zortzi gertaeraz osaturik dago egoera hau (ikus deskribapena laukian). Haurra, bere ama edo beste atxikimendu irudi batekin, ezezaguna zaien jostailuz betetako gela batean sartzen da (laborategian).

Haurraren portaera, bere amarekin dagoenean –biak bakarrik eta pertsona arrotz baten aurrean– behatzen da. Ondoren ama joan eta berriro behatzen da haurraren portaera –behin bakarrik dagoela eta beste behin arrotz zaion pertsona batekin–.

1. taula. Arrotz Egoeraren gertaerak

1. Ikertzaileak, subjektu helduak haurra besoetan duela, sarrarazten ditu ikerketa gelan. Gela hau norabide bakarreko ispilua edo bideo sistema batez horniturik dago. Gelan, esan bezala, haurraren adinerako egokiak diren jostailuak daude. Bi aulki daude, heldua eta ezezagunarentzat. Ikertzaileak helduari eskatzen dio haurra bi aulkien artean uzteko eta esertzeko.

2. Heldua eta haurra bakarrik gelditzen dira. Helduak aldizkaria irakurtzeko agindua zuen, haurrarekin kontakturik ez hasteko. Haurrak kontaktua hasten badu, edo beharren bat adierazten badu bakarrik egingo dio kasu. Beharrezkoa izanez gero, haurra jostailuak esploratzera animatuko du.

3. Haurra eta helduarentzat arrotza edo ezezaguna den emakume bat (hortik prozeduraren izena) sartzen da, agurtu eta eseri egiten da. Poliki-poliki, bere arreta lortu nahian baina intrusiboa izan gabe, haurraren inguratzen da.

4. Heldua, haurrari ezer esan gabe, gelatik irteten da aulkian berea den zerbait utziaz, itzuliko delako seinale. Haurra pertsona arrotzarekin geratzen da, hau urrundu egiten da, eta ez du haurrarekin kontakturik hasten. Haurra gaizki sentitzen bada, arrotzak kontsolatu egiten du eta jostailuekiko haurraren interesa pizten saiatzen da.

5. Heldua itzultzen da eta arrotza badoa. Sartu baino lehen, ozenki hitz eginaz, heldua hor dagoela adierazten du. Gelan dagoenean, haurraren erantzuna (inguratzea edo beste edozein) ikusi ahal izateko geldiene bat egiten du. Helduak bigarren gertaeran zuen jarrera berbera hartuko du. Haurra itsasten bazaio, heldua, haurra lasaitu eta jostailuetan interesatu dadin ahaleginduko da.

6. Heldua gelatik ateratzen da berriz, haurra bakarrik utziaz, baina oraingoan segituan itzuliko dela dio. Ispiluaren beste aldetik, edo telebistako monitoretik haurra ikusten du; hau gaizki sentitzen bada, prozedura moztu egiten da.

7. Arrotza itzuli eta haurrarekin bakarka egoten da. Amak 5. gertaeran bezalaxe jardungo du. Haurrak ez badio kasurik egiten, bere arreta lortzen saiatzen da, eta gero urrundu egiten da. Haurra itsasten bazaio, lasaitu eta jostailuekiko bere interesa pizten saiatzen da.

8. Heldua itzultzean arrotzak alde egiten du. 5. gertaldian bezala, geldiene bat egin eta gero, helduak haurra bere besoetan hartu eta berarekin egoten da azkeneko hiru minutuetan.

5.1. Egoeraren kodifikazioa.

Ainsworthek proposatutako bi kodifikazio sistemak erabiltzen dira egoera honetatik sortutako datuak aztertzeko (Ainsworth eta Kideak, 1978): haurrak duen segurtasun mailaren estimazioa eta eskala interaktiboak.

Lehenengoak, dudarik gabe erabiliena, haurraren erantzun orokorra hartzen du kontutan; bigarrena, aldiz, zehatzagoa da eta gertaeraz gertaera ebaluatzen du haurraren portaera.

Bi aukeretan, behatzaile entrenatuek lortzen duten epaileen arteko akordioa .85-.95 artekoa da. Hau da, bi epaiketen arteko akordio maila %90ekoa da (Pierrehumbert, 1992).

5.1.1. Atxikimenduaren segurtasun maila.

Laborategi egoera honetan, esan bezala, estres xume batean murgiltzen da haurra. Honi esker beha ditzakegun elementuak hauek dira: haurrak bere atxikimendu irudiarekiko portaera nola antolatzen duen, nolakoa den irudi horrek, ingurua esploratzeko eta ezezagunekin harremanetan jartzeko, ematen dion segurtasun maila, eta azkenik haurra, atxikimendu irudiak alde egiten duenean eta itzultzen denean, nola portatzen den.

Egoera honen arabera, haurrak hiru talde nagusitan banatzen ziren (Ainsworth eta Witting, 1969): seguruak (%66), anibalenteak (%12) eta iheslariak (%22).

Urte batzuk beranduago, Main eta Kideek (1981) A, B, C ereduetan sailka ezin zitekeen talde txiki bat aurkitu zuten (laginaren %13). Geroko lan batean, Main eta Kideek (1985) atxikimendu eredu berri bat balidatu eta garatu zuten, D taldea, taldexka hartako haurrek Arrotz Egoeran agertzen zuten portaera deskribatu ahal izateko.

2. taula. Arrotz Egoeraren bidez egindako haurren sailkapena²

A taldea, edo atxikimendu iheslaria –avoidant– adierazten duten haurrak. Atxikimendu irudiarengan segurtasunik bilatu gabe, ingurua esploratzen dute. Bera gelatik ateratzen denean, lasai eta kexarik gabe gelditzen dira. Ama eta ezezaguna den heldua berdin samar tratatzen dituzte, eta bukatzeko, ama itzultzen denean, beregandik ihes egiten dute.

A1: Nabariki egiten dute ihes helduarengandik, hau gelara itzultzen denean (beste alde batera begiratzen dute, bueltatu egiten dira, edo joan e.a.). Ez dira inguratzen elkartzerakoan. Helduak haurra besoetan hartzen badu, ez dute kontakturik mantentzen. Atxikimendu irudia eta ezezaguna berdin tratatzen dituzte.

A2: Agurtu edo inguratzeko keinu arin bat egiten dute helduarekin biltzerakoan, bueltatzeko, alde egiteko edo beste alde batera begiratzeko joerarekin nahastuta. Ekiditze testuinguru orokorrean kontaktu txiki bat izan daiteke.

2. Ainsworth, Blehar, Waters eta Wall (1978) eta Pierrehumbert-etik (1992) egokituta.

B taldea, edo atxikimendu segurua duten haurrak. Haur hauek segurtasun oinarri bezala ingurua miatzeko eta lasaitasun iturri bezala banatzearen ondoren ama erabiltzen dute. Normalki, talde honetako haurrak ez daude banatzeagatik asaldaturik. Amarekin eta ezezagunarekin portaera diferentziatua agertzen dute.

B1: Banaketaren ondoren, helduarekin elkarreragin egoki baina urrutikoa agertzen dute. Ez dute kontaktu fisikorik bilatzen. Helduak haurra hartzen badu, honek ez du kontaktua mantentzen. Ez dute agertzen banatzean herstura, edo oso gutxi. Bilkura garaian saiheste portaera xume bat nabaritu daiteke.

B2: Heldua agurtu eta inguratzeko joera agertzen dute, baina kontaktu fisikoaren bilaketa arina da. Ekiditze arina ikus daitekeen arren, hurbiltasuna bilatzen dute. Haurra hartuta izanez gero, ez dute kontakturik mantentzen. Bereizketan herstura txikia mantentzen dute.

B3: Aktiboki bilatzen du kontaktua bereizketaren ondoren. Hurbiltasuna mantentzen du era nabarian. Helduaren ondoan lasaitu egiten da, eta horrela gertatzen zaio bereizketaren ondoren. Atxikimendu irudiaren aurrean ingurua esploratzeko gai da. Ez du kontakturik ekiditen edo erresistitzen.

B4: Kontaktua eta hurbiltasuna bilatzen du, bereziki bileretan, baina ez B3a bezain eraginkor. Helduak ez dio ingurua esploratzeko nahikoa segurtasunik ematen. Hersturaz beteta dirudi gertaera guztietan zehar, lasaitasunik gabe. Kontaktuarekiko erresistentzia ager dezake.

C taldeko haurrak anbibalenteak –ambivalent– bezala ezagutzen dira, zeren kontaktua aktiboki bilatzen dute, baina behin lortuz gero, desegin nahi dute. Eta helduak askatu egiten duenean, kexatzen dira. Esplorazio pobrea adierazten dute, amaren joan-etorriaz kezkatuak daudenez. Amak alde egiten duenean erreakzio gogorra izaten dute; baina itzultzen denean hurbiltasun bilaketa, negarra eta arbuioarekin nahasten dute. Tonalitate emozionala haserrearena, hersturarena edo erresistentzi emozionalarena da

C1: Hurbiltasuna eta kontaktu fisikoa nabariki bilatzen dute. Bilkuretan kontaktu handia dute atxikimendu irudiarekin, erresistentzi nabariarekin eta haserrearekin batera nahastuta. Erresistentzia ere ezezagunarengana bideratzen dute. Banaketan herstura handia jasaten dute.

C2: Pasibitate handia, esplorazio gutxi, separazio aurreko gertaeretan ere. Kontaktua lortzeko, edo hurbiltasuna mantentzeko saiakera eskasak egiten dituzte, baina haurrak besoetan hartua izateko gogoia garbi adierazten du, eta negar egiten du edo protestatu, lurtean uzten dutenean. Erresistentzia ere adierazten du, baina C1-ek baino gutxiago.

D taldeko haurrek atxikimendu desarautua edo desorientatua adierazten dute –disorganized/disoriented attachment–. Helduekin biltzen direnean, aprentsioa, nahasketa, depresioa batzuetan, adierazten dute bere jarreretan.

Haur hauek kontrajarriak diren portaerak adierazten dituzte –esaterako, helduarengana inguratzen dira, baina burua beste aldera bueltatuta–, bere mugimenduek osatugabeak dirudite eta afektuen adierazpena gaizki bideratzen dute.

5.2.2. Interakzio edo Elkarreragin Eskalak (Ainsworth, Blehar, Waters eta Wall 1978)

Eskala hauek interaktiboak deitzen dira, kontutan hartzen baitute ez bakarrik haurraren portaera, baizik eta baita bere partaidea den helduarena ere. Egoera Arrotzaren episodio bakoitza kodifikatzeko pentsaturik daude, baina esan behar dugu biak oso ikerketa gutxitan erabili direla.

Ainsworth eta kideek (1978) eskala hauen deskripzio zehatza ematen dute. Intentsitatearen arabera, 7 puntu bitarteko eskala batean markatzen da portaera bakoitza. Gertaera bakoitzean eskala hauek, haurraren atxikimendu irudiarikiko portaera edo arrotzarekikoa, baita hauen haurrarako portaera ere, deskribatzen dute

Eskalan behatzen diren portaerak 3. taulan agertzen dira.

3. taula. Interakzio Eskaletan behatzen diren portaerak

1. Hurbiltasun eta kontaktuaren bila (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktuan jartzeko).
2. Kontaktua mantentzea (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktuan jarraitzeko).
3. Kontaktuarikiko erresistentzia: honen bidez, heldua hurbiltzen zaionean, edo beregan interesa adierazten duenean, kontaktuan ez jartzeko haurrak adierazten duen erresistentzia maila ikusten dugu (adibidez, helduak hartu nahi duenean bere burua atzera botatzea, mutu gelditzea, haserretzea, helduak emandako jostailuak botatzea, e.a.).
4. Saihestea: Aldagai hau helduaren hurbiltasuna edo elkarreragina oztopatzea helburu bezala duen haurraren portaerari dagokio (helduari bizkarra eman, ez begiratu...).
5. Urrutiko elkarreragina: Eskala honek, ukitze fisikorik gabe haurrak helduarekiko adierazten duen interesa neurtzen du (irribarrea, begirada...).
6. Desagertu den pertsonaren bilaketa deskribatzen da eskala honetan (ateraino pertsona heldua jarraitu, atea ireki nahia, e.a.).

6. Atxikimendu Irudiaren portaera eta Atxikimenduaren Segurtasunaren arteko Erlazioa.

Atxikimenduaren segurtasunak gurasoen –edo atxikimendu irudien– jarrekin eta bereziki figura horren eskuragarritasunarekin oso harreman estua du.

Ainsworthek bere lanean, amen (gurasoen) portaeretan, ezberdintasun nabariak agertzen zirela aurkitu zuen (Ainsworth, 1982).

B ereduko haurren gurasoak eskuragarriak dira haurrak beraien beharra dutenean. A ereduko haurren gurasoak berriz, hotzak dira eta urrutitik tratatzen

dituzte; C ereduko haurren gurasoak aldiz ezegonkorrak dira eta azkenik D ereduko haurrenak beldurgarriak, abusatzaileak edo arazotsuak (ikus Main eta kideak 1985; Crittenden, 1988; Carlson eta kideak 1989).

Amaren portaeraren dimentsio bat zegoen haurraren portaerarekin bereziki modu estuan erlazionatua lehenengo urtean: haurraren seinaleei eta komunikazioari erantzuteko sentiberatasun maila.

Sentiberatasun/Sentiberatasun-eza dimentsioa, garrantzizkoa bada ere, ez da bakarra. Ainsworth eta bere taldeak behatu zutena zera izan zen: haurren seinaleetara oso sentibera edo sentsible ziren amek portaera berdintsua zutela, eta intsentsible edo ez-sentibera zirenak berriz, modu ezberdinetan zirela ez-sentiberak.

Ez-sentibera zen portaeraren barruan hiru dimentsio identifikatu zituzten: errefusatze edo arbuizatzea, interferentzia eta kasurik ez egitea.

Hauetatik arbuizatzea zen interesgarriena, behar bada, atxikimendu patroi batekin erlazio oso estuan zegoelako (A eredia edo atxikimendu iheslaria zuten haurrak). Ama hauek haurrak arbuiatu egiten zituzten, gorputz kontaktua ez zuten gogoko, maiz haserre zeuden, aurpegian espresio gutxi adierazten zuten eta konpultsiboak ziren haurrak zaintzeko moduetan.

C atxikimendua (anbibalentea) zuten haurren amek portaera ezberdinak adierazten zituzten, baina ez zituzten haurrak errefusatzeko. Gorputz kontaktua gogokoa zuten, baina ezegonkorrak ziren: horregatik haurrek ez dute konfidantza handirik hauen erantzukizunetan, eta gatazkaren aurrean atxikimendu sistema aktibatu egiten denean, anbibalenteak gaizki sentitzen dira, horrelako egoeretan lasaitasun edo segurantzia sentitu ordez, frustratuak sentituko direla ikasi baitute. Honek, Bowlbyren ideia jarraituz (Bowlby 1988) ondorengo (heldutasuneko) ongizatean edo patologian bere eragina du.

Haur eta gurasoen erlazioa ez da hutsean ematen, eta badira harreman horiek –eta beraz, atxikimenduaren segurtasun maila– baldintzatzen dituzten faktore batzuk: kultura ezberdineko hazkuntza ohiturak eta familiaren inguruko giroa. Honi buruz ikerketa asko egin da Arrotz Egoera erabiliz, eta ez bakarrik laborategian, baizik eta baita egoera naturaletan ere (laburpen baterako, ikus Yarnoz 1995).

Hainbat herrialdetan egindako ikerketa konparatiboek (Main, 1990) Ainsworthek aurkitutako patroien balorea egiaztatzen dute, haurrak hezitzeko ohiturak islatzen dituzten ezberdintasun batzuekin (ikus Van Ijzendoorn eta Kronenberg, 1988 metaanalisi baterako). Horrela, Grossman eta kideek (1985) Alemanian A taldean sailkatutako haur proportzio handi bat, haurren independentzia bultzatzeko joera zuten gurasoekin elkarloturik aurkitu zuten. Sagi eta kideak (1985), Sagi (1990), Miyake eta kideak (1985) eta Takahashi-ren (1990) lanetan, Japonian eta Israelgo kibbutzetan C taldean sailkaturik zegoen haur proportzio handi bat aurkitu zen. Autoreek ez dute uste gertaera honek atxikimendu anbibalente edo iheskorra adierazten duenik, baizik eta haurrak hazteko ohiturak herri bakoitzaren testuinguru kulturalen barruan kokatzen direla, eta haur hauentzako kanpotarren agerpena Amerikako haurrentzako baino estresanteago dela.

7. Atxikimenduak haurtzaroa eta gero.

Atxikimendu Teoriaren erdiespena helduen mundura zabaldu da (Ainsworth 1989). Haurrengan bezala, helduengan ere atxikimendu portaerak eta patroiak somatzen hasi ziren, Bowlbyren baieztapen ospetsua (atxikimendu dinamikak sehaskatik hilobira mantentzen direla, alegia) konfirmatuz.

Funtsean, Ainsworthek jarri zituen helduen atxikimenduaren ikerkuntza has-teko oinarriak. Atxikimenduaren barruan post-bowlbytarrek bezala kontsideratzen diren autoreak (Holmes, 1996) bere ikasleak izan ziren: Bretherton, Cassidy, Crittenden, Kobak, Main eta Waters. Hauek joera psikodinamikoa duten autoreak izanik, klinikan interesaturik agertu dira. Ainsworthen eredu jarraituz, ebaluazioa egiterakoan elkarrizketak eta behaketak dituzte gogoko, ikerketarako talde txikiak erabiliz eta guraso-haurren arteko harremanak aztergai hartuz.

Helduen Atxikimenduaren Elkarrizketa (Adult Attachment Interview, George, Kaplan eta Main, 1985) ebaluazio tresnarik erabiliena da eredu honetan. Helduei aplikatzerakoan hiru atxikimendu eredu eratoritzen ziren: segurua, kezkatia, eta ekiditzailea.

Segurua edo Atxikimendua Ebaluatzeko Askea. Subjektu hauek atxikimendu-ari balioa ematen zioten eta atxikimenduaren inguruko gertaerak eraginkorrak bezala begiratzen zituzten. Bestalde, aske eta objektibo samarrak ziren gertaera edota erlazio konkretu bat ebaluatzerakoan. Erlaxatuak sentitzen ziren atxikimendu gertaerak gogoratzeko, eta oroitzapenak, oro har, baikorrak ziren. Gertaera ezezkor bat bururatzeko, subjektuak gauza ziren erlazioaren gainbegirada orokor batean bertan zeuden alde positibo eta negatiboak integratzeko.

Ekiditzaileak. Atxikimendu erlazioei garrantzia kentzeko joera zuten, eta maiz zailtasunak izaten zituzten atxikimendu gertaera konkretuak gogoratzeko, edota gaur egungo jardueran, beren balorea mesprezatzen zuten. Gertaera zehatzez oroitzen zirenean, arbuioa edo arbuioa eta maitasun falta agertzen zuten gehienetan, maiz elkarrizketan gurasoek emandako gainbegirada positibo baten kontra.

Kezkatuak. Subjektu hauek atxikimenduaren inguruko jarreretan korapilatuak sentitzen ziren. Nahiz eta talde honetako partaideek haurtzaroko gertaerak maiz gogoratu, arazoak izaten zituzten esperientzia hauek eredu koherente batean integratzerakoan, eta nahaspilatsu samar agertzen ziren gurasoekiko erlazioaren ikuspegi negatiboek, oraindik ere gurasoen gogokoak izateko ahaleginak egiten zituztelarik.

Helduen Atxikimenduaren Elkarrizketa, belaunaldien arteko barne eredu eraginkorren transmisioa aztertzeko eta atxikimendu-irudiaren sentikortasunaren kalitatea ebaluatzeko diseinatu zen.

Helduek txikitan gurasoekin izandako esperientzien oroitzapenak eta diskurtsoaren koherentzia ziren ebaluaziorako irizpideak. Hauen arabera subjektuaren kategoriazioa egiten da atxikimendu-eredu ezberdinetan. Edukia baino haurtzaroko irudiei buruzko informazioa nola egituratzen den ikustea da helburua eta subjektuaren oraingo buru-egoera barne eredu eraginkorren isla bezala kontsideratzen da.

Hauekin kontrajarriz, badira nortasunaren psikologian eta gizarte psikologian kokatzen diren beste autore batzuk: Hazan, Shaver, Feeney, Noller, Bartholomew, Kirkpatrick... Helduaroan, ildo honetatik berdinkide, lagun edo bikotearekiko atxikimenduaren azterketari ekiten diote. Kasu honetan galdesortak erabili dira, lehenengoa Hazan eta Shaverrek (1987) diseinatutako tresna izan zelarik; bertan atxikimendu-eredu bakoitzerako (hiru: seguruak, iheslariak eta anibalenteak) prototipoak idazten ziren.

Bartholomew eta Horowitzen ustetan, hiru ereduko sailkapenak ez du ondo islatzen helduen atxikimenduen konplexutasun eta aberastasuna. Horregatik, lau ereduko sailkapen bat proposatu dute (Bartholomew, 1990; Bartholomew eta Horowitz, 1991). Sailkapen honetan, eta Bowlbyren teoria jarraituz, onartzen da atxikimendu ereduak behar hainbat islatzen dutela gure buruarekiko dauzkagun usteak eta besteei buruzkoak, edo beste hitz batzuekin esanda, atxikimendu irudiei buruzkoak.

Beraz, lau atxikimendu mota bereizten dituzte, norberaren eta besteen irudia positiboa ala negatiboa den kontutan harturik:

Seguruak. Bere buruaz eta besteez duten irudia positiboa da. Intimitatearekin eta autonomiarekin ongi sentitzen dira.

Kezkatiak. Norbere buruaz duten irudia negatiboa da eta besteez dutena positiboa. Eredu honen korrespondentzia haurretan anibalentea da, eta Mainen sailkapenean ere kezkatia da. Subjektu hauek harremanetan kezka eta dependentzia adierazten dute.

Ekiditzaileak. Bere buruaz irudi positiboa dute, eta besteez berriz, negatiboa. Bere buruaz duten irudi ona mantentzearen intimitatea ekidin eta atxikimendu sistema desaktibatzen dute.

Beldurtiak. Bere buruaz eta besteetaz duten irudia negatiboa da. Ez dira besteekin erlazionatzen errefuxatuak izateko beldurra dutelako.

Ondorio gisa, garbi dago Psikologiaren beste edozein alorretan bezala, Atxikimendu Teoriaren barruan egindako ikerketen balioa eta euren marko teorikoaren gailentasuna, gutxieneko kanpo balidezia bermatzen duen oinarri batetik eraiki behar dela. Atxikimenduaren Teoriaren eta Ikerkuntzaren onarpena eta zabalkundea munduan zehar, neurri handi batean Ainsworthen lanari eskertu behar zaio, berak egiaztatu baitzuen haurtzaroan ezarritako atxikimendu patroiek nortasunaren antolaketan jokatzeko duten garrantzizko papera. Goian bego.

Bibliografia

- Ainsworth, M. D., (1954): "Problems of validation". In B. Kolpfer, M. Ainsworth, W. G. Klopfer, & R. R. Holt (Arg.), *Developments in the Rorschach Technique: Technique and Theory*, Harcourt, Brace & World, New York.
- , (1963): "The development of infant-mother interaction among the Ganda." In B. M. Foss (Arg.), *Determinants of infant behavior*, Wiley, New York.

- , (1967): *Infancy in Uganda: Infant care and the growth of love*, Johns Hopkins University Press, Baltimore.
- , (1982): "Attachment: Retrospect and Prospect". In C. M. Parkes & J. Stevenson-Hinde (Arg.), *The place of Attachment in human behavior*, Basic Books, New York.
- , (1983): "A sketch of a career", In A. N. O'Connell & N. F. Russo (Arg.), *Models of achievement: Reflections of eminent women in psychology*, Columbia University Press, New York.
- , (1989): "Attachments beyond infancy", *American Psychologist* 44, 709-716.
- , (1998 (1. edizioa 1991)): "Attachment and other affectional bonds across the life cycle". In C. M. Parkes, J. Stevenson-Hinde, & P. Marris (Arg.), *Attachment across the life Cycle*, Routledge, London.
- Ainsworth, M. D. S., & Bell, S. M., (1969): "Some contemporary patterns in the feeding situation". In A. Ambrose (Arg.), *Stimulation in early infancy*, Academic Press, London.
- Ainsworth, M. D. S., Bell, S. M., & Stayton, D., (1971): "Individual differences in Strange Situation behavior of one-year-olds". In R. H. Schaffer (Arg.), *The origins of human social relationships*, Academic Press, London.
- Ainsworth, M. D. S., Blehar, M. C., Waters, E., & Wall, S., (1978): *Patterns of Attachment: A psychological study of the Strange Situation*, Erlbaum, Hillsdale, N.J.
- Ainsworth, M. D. S., & Bowlby, J., (1991): "An Ethological approach to Personality Development", *American Psychologist* 46, 333-341.
- Ainsworth, M. D. S., & Eichberg, C., (1998 (1. edizioa 1991)): "Effects on infant-mother attachment of mother's unresolved loss of an attachment figure, or other traumatic experience". In C. M. Parkes, J. Stevenson-Hinde, & P. Marris (Arg.), *Attachment across the life Cycle*, Erlbaum, Hillsdale, N.J.
- Ainsworth, M. D. S., & Witting, B. A., (1969): "Attachment and the exploratory behavior of one-year olds in the strange situation". In B. M. Foss (Arg.), *Determinants of infant behavior (vol. 4)*, Methuen, London.
- Anzieu, D., (1961): *Los métodos proyectivos*, Abaco, Buenos Aires.
- Avila Espada, A., (1986): *Manual operativo para el Test de Apercepción Temática*, Pirámide, Madrid.
- Bartholomew, K., (1990): "Avoidance of intimacy: An attachment perspective", *Journal of Social and Personal Relationships* 7, 147-178.
- Bartholomew, K., & Horowitz, L. M., (1991): "Attachment styles among young adults: A test of a four-category model", *Journal of Personality and Social Psychology* 61, 226-244.
- Bell, S. M., & Ainsworth, M. D. S., (1972): "Infant crying and maternal responsiveness", *Child Development* 43, 1171-1190.
- Blehar, M. C., Lieberman, A. F., & Ainsworth, M. D. S., (1977): "Early face to face interaction and its relation to later infant-mother attachment", *Child Development* 48, 182-194.
- Bowlby, J., (1988): "Developmental psychiatry comes of age", *American Journal of Psychiatry* 145, 1-10.
- Bretherton, I., (1992): "The origins of attachment theory: John Bowlby and Mary Ainsworth", *Developmental Psychology* 28, 759-776.
- Carlson, V., Barnett, D., Cicchetti, D., & Braunwald, K., (1989): "Disorganized/Disoriented Attachment Relationships in Maltreated Infants", *Developmental Psychology* 25, 523-531.
- Crittenden, P., (1988): "Relationships at Risk". In J. Belsky & T. Nezworski (Arg.): *Clinical Implications of Attachment*, Erlbaum, Hillsdale, N.J.

- George, C., Caplan, N., & Main, M., (1985): *Attachment Interview for Adults*, University of California, Eskuizkribu argitaragabea.
- Grossmann, K., Grossmann, K. E., Spangler, G., Suess, G., & Unzner, L., (1985): "Maternal sensitivity and newborn's orientation responses as related to quality of attachment in Northern Germany". In I. Bretherton & E. Waters (Arg.), *Growing points of Attachment Theory and research. Monographs of the Society for Research in Child Development*, 50 (1-2, serial n. 209), Chicago.
- Hazan, C., & Shaver, P., (1987): "Romantic love conceptualized as an Attachment Process", *Journal of Personality and Social Psychology* 52, 511-524.
- Holmes, J., (1996): *Attachment, Intimacy, Autonomy: Using Attachment Theory in Adult Psychotherapy*, Aronson, New York.
- Klopfner, B., Ainsworth, M.; Klopfner, W.G eta Holt, RR., (1954): *Developments in the Rorschach Technique: Technique and Theory*, Harcourt, Brace & World, New York.
- Main, M., (1990): "Cross-Cultural studies of attachment organization: Recent studies, changing methodologies and the concept of conditional strategies", *Human development* 33, 48-61.
- Main, M., Caplan, N., & Cassidy, J.,(1985): "Security in infancy, childhood and adulthood: A move to the level of representation". In I. Bretherton & E. Waters (Arg.), *Growing points of Attachment Theory and research. Monographs of the Society for Research in Child Development*, 50 (1-2, serial n. 209), Chicago.
- Main, M., & Wetson, D., (1981): "The quality of the toddler's relationship to mother and to father: Related to conflict behavior and the readiness to establish new relationships", *Child Development* 52, 932-940.
- Miyake, K., Chen, S. J., & Campos, J. J., (1985): "Infant temperament, mother's mode of interaction and attachment in Japan: An interim report", in I. Bretherton & E. Waters (Arg.), *Growing points of Attachment Theory and research. Monographs of the Society for Research in Child Development*, 50 (1-2, serial n. 209), Chicago.
- Pierrehumbert, B., (1992): "La situation étrange", *Devenir* 4, 69-94.
- Sagi, A., (1990): "Attachment theory and research from a cross-cultural perspective", *Human Development* 33, 10-22.
- Sagi, A., Lamb, M. E., Lewkowicz, K. S., Shoham, R., Dvir, R., & Estes, D., (1985): "Security of infant-mother-father-metapelet attachments among kibbutz-reared Israeli children". In I. Bretherton & E. Waters (Arg.), *Growing points of Attachment Theory and research. Monographs of the Society for Research in Child Development*, 50 (1-2, serial n. 209), Chicago.
- Stayton, D., & Ainsworth, M. D. S., (1973): "Development of separation behavior in the first year of life", *Developmental Psychology* 9, 226-235.
- Stayton, D., Hohan, R., & Ainsworth, M. D. S., (1973): "Infant obedience and maternal behavior: The origins of socialization reconsidered", *Child Development* 42, 1057-1070.
- Takahashi, K., (1990): "Are the key assumptions of the Strange Situation procedure universal? A view from Japanese research", *Human development* 33, 23-30.
- Tracy, R. L., & Ainsworth, M. D. S., (1981): "Maternal affectionate behavior and infant-mother attachment patterns", *Child Development* 52, 1341-1343.
- Tracy, R. L., Lamb, M. E., & Ainsworth, M. D. S., (1976): "Infant approach behavior as related to attachment". *Child Development* 47, 571-578.
- van IJzendoorn, M. H., & Kroonenberg, P. M., (1988): "Cross-cultural patterns of attachment: A Meta-analysis of the Strange Situation", *Child Development* 59, 147-156.
- Yarnoz Yaben, S., (1995): "Atxikimendua ebaluatzeko tresnak", *Uztaro* 11, 89-103.